

# 2021-2025


## Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III Plana



01.	PLANAREN IKUSPEGIA..	..	..	..	..	..	..	3
02.	ESPARRU TEORIKOAETALEGE-ESPARRUA..	..	..	..	..	..	..	6
03.	PLANAREN EZAUGARRIAK..	..	..	..	..	..	..	15
04.	HOBETU BEHARREKO ARLOAK ..	..	..	..	..	..	..	16
05.	2021-2025RAKO EKINTZA-PLANA..	..	..	..	..	..	..	18
06.	PLANAREN KUDEAKETA	..	..	..	..	..	..	25

# 01.PLANAREN IKUSPEGIA

Lezoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planak kontuan ditu EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren printzipioak eta lan-estrategiak.



## Gobernu ona

Gobernu onak gobernagarritasun-eredurarekin du zerikusia. Gobernagarritasun-ereduak ekonomia-, jendarte- eta ingurumen-esparruak kudeatu eta aurrera egiten du horietan, genero-ikuspegia hainbat arlotan gehitzen/txertatzen duen kultura baliatuz: gardentasunean; herritarren parte-hartzean; lankidetzaren publikoa eta pribatua ikertzeko eta gauzatzeko molde berrien beharrezan; administrazioen arteko lankidetzan; politika publikoak hobetu eta helburuak lortzeko ebaluazioa sustatzean. Azken batean, berdintasunean oinarritutako eredu batera igarotzea da kontua, efizientziatik eta gardentasunetik abiatuta, kontuak emanez eta jendartearen parte hartzea sustatuz.

## Emakumeak ahalduntzea

Nazio Batuen estatu kideek 2030 Mundu Agenda berria eta Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) onartu zituzten 2015ean. Horrekin, XXI. mendeak daraman bidea aldatu nahi dute, txirotasuna, bizitzako arlo guztietan dauden desberdintasunak eta emakumeen aurkako indarkeria/indarkeria matxista ezabatuz. Halere, NBE Emakumeak erakundeak dioen bezala, ezin da ezer hobetu alde

aurretik emakumeak ahaldundu gabe, hau da, ahalduntzea da munduan emakumeen eta gizonen berdintasunerako gizarte-eraldaketaren baldintza eta bermea.

## **Ekonomiak eta jendartearen antolakuntza eraldatzea eskubideak bermatzeko**

Nazio Batuen Erakundeak adierazten du ekonomiak eraldatu eta eskubide ekonomiko eta sozialak baliatzeko, beharrezkoa dela lehentasunezko hiru esparrutan jardutea: emakumeentzako lan egokiak lortzeko jardueran, genero-ikuspegia duten jendarte-politiketan eta eskubideetan oinarritutako politika makroekonomikoetan. Emakumeen eskubideak politika ekonomikoetan eta sozialetan sartuz gero, giza garapenen iraunkorrari laguntzen zaiola aintzat hartuta, hori lanerako ardatz izatea proposatzen da, egin beharreko bidean NBEk adierazitako lehentasunak jasotzen baititu.

Ilido beretik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordearen 2016ko uztailaren 21eko Akordioaren arabera, behar-beharrezkoa da egungo eredu ekonomikoari buruz eta horrek garapen jasangarriarekiko duen eraginaz eztabaida publikoa bultzatzea, lagun guztien eskubideak bermatze aldera.

## **Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko biziak**

Emakumeen aurkako indarkeria, indarkeria matxista giza eskubideen urraketa larria da. Emakumeen aurka gauzatzen da, emakumeak izate hutsagatik. Egun dagoen desberdinkeriazko jendarte-eredu jerarkikoa, genero-bereizkeriaren eta gizonen emakumeen gain duten boterearen ondorioa da, eta emakumeek gizonen mendeko izan behar dute, azken batean.

Emakumeen aurkako ekintzat jotzen dira generoarengatik egindako indarkeria-ekintza guztiak, jendaurrean nahiz pribatuan, emakumei kalte edo oinaze sexual, psikologiko nahiz ekonomikoa ekartzen dizkietenak edo ekar diezazkieketenak,, bai eta indarkeria-ekintzak egiteko mehatxuak, derrigortzea zein askatasun-kentze arbitrarioa ere.

## COVID – 19a

COVID-19aren ondorioz, azken aldiko osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisi garrantzitsuena gertatu da, eta agenda eta lehentasun politiko eta sozialak aldatu dira mundu osoan.

Pandemia desberdin ari da eragiten emakumeengan eta gizonengan eta datuek erakusten digute emakumeek eta neskek arrisku handiagoa dutela krisi honen ondorio negatiboen aurrean eta horren harira, Eudelek, Emakundek eta beste zenbait erakundek herri-erakundeen konpromiso sendoa eskatu eta berdintasun politikak eta zerbitzuak indartzeko deia egin dute. Premiazkoa da genero-ikuspegia txertatzen duten neurriak hartzea III Planaren indarraldian, krisi honek desberdintasunak areagotzea eta emakumeen eskubideen erabileran eta berdintasunerako bidean atzera egitea saihesteko.

## 02. ESPARRU TEORIKO ETA LEGALA

Azken urteetan, hainbat lege eta arau juridiko onartu dira nazioarte mailan, Europan, estatuan eta tokiko mailan, Gizon eta Emakumeen arteko berdintasun eskubidea aitortzeko xedez, beraz, Berdintasun Plan honek oinarri zabala dauka erakunde eta lege mailan.

Ondoren aipatuko ditugu genero politiken arlo teoriko eta legalen mugarrietako batzuk:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Tokiko Oinarriak arautzen dituena (03/12/21eko dataz eguneratua).
- Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, EAEko Gizon eta Emakumeen arteko berdintasunerako.
- Gizon eta Emakumeen berdintasunerako Gipuzkoako Foru Aldundiren II. Plana 2013- 2020
- Gizon eta Emakumeen arteko EAEko VII. Berdintasun Plana.
- Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako.
- Lanean eta enpleguan emakumeen eta gizonen arteko aukeren eta tratabideen bermerako premiazko neurriei buruzko martxoaren 1eko 6/2019 Lege-Dekretua.
- Tokiko bizimoduan Gizon eta Emakumeen berdintasuna ezartzeko Europako Karta.

### **Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Tokiko Oinarriak arautzen dituena (03/12/21eko datan eguneratua).**

28. artikuluan aipatzen da Udalerriek jarduera osagarriak burutu ditzaketela, Administrazio Publikoetan ezarritakoez gain, bereziki hezkuntza, kultura, emakumeen sustapena, etxebizitza, Osasuna eta ingurumenaren babesari dagokienez. Testuinguru horretan, Tokiko Administrazioaren protagonismoa argia da; Udalerriek eskumena uzten zaie, generoaren arloan herritarren beharrianak eta interesak betetzeko zerbitzu publikoak eta jarduerak sustatzeko, horrek guztiak beste administrazio publiko batzuen eskumenei kalte egitea suposatzen gabe.

## Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, EAEko Gizon eta Emakumeen arteko berdintasunerako

Aipatutako Legearen esparruan argi eta garbi definitzen dira administrazio maila bakoitzari Gizon eta Emakumeen Berdintasunaren arloan dagozkien funtzioak, Autonomia Estatutuaren 10.39 artikulua onduzko eskumenetatik, Lurralde Historikoen Legearen 6 eta 7 c) 2 artikuluetatik eta estatutu arau (9.2. Artikulua) eta komunitate arauetatik (Europar Batasunaren Itunaren 3.02 artikulua) eratorrita. Horien bidez, aginte publiko guztiek daukate gizon eta emakumeen arteko berdintasun erreala lortzeko lanean baldintza egokiak sustatu eta oztupoak gainditzeko betebeharra, berdintasun hori beren politika eta ekintza guztietan sustatuz.

Gizon eta Emakumeen arteko berdintasunerako Legeak honako funtzioak esleitu dizkio Tokiko Administrazioari:

- Genero ikuspegia integratzeko egitura, programa eta prozedurak egokitu eta sortzea.
- Ekintza positiboko neurriak betearaztea.
- Programatzea, Gobernuaren plangintza orokorraren programazioa eta Foru Aldundien programazioaren markoan.
- Gizon eta emakumeen arteko desberdintasun egoeren ezagutza bideratzeko estatistikak egokitu eta eguneratzea eta berdintasuna sustatzeko beharrezko neurriak sustatzea.
- Ikerketak burutzea emakume eta gizonen egoeraren inguruan, tokiko mailan.
- Gizon eta emakumeen arteko desberdintasun egoeren inguruko eta desberdintasuna sustatzeko beharrezko neurrien inguruko sentsibilizazio jarduerak burutzea.
- Tokiko araudiaren eta horren aplikazioaren jarraipena egitea, gizon eta emakumeen arteko berdintasun printzipioarekin bat eginda.
- Herritarrei, eta bereziki emakumei, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruko baliabide eta programei buruzko informazioa eta orientazioa ematea, baita diskriminazioa sufritzen duten emakumeen oinarrizko eskubideak gauzatu ahal izateko zerbitzu eta programei buruzkoa ere.
- Zerbitzu edo programak burutzea, diskriminazio mota anitzak sufritzen dituzten emakumeek beren oinarrizko eskubideak bermatzeko helburuarekin, betiere, udal mailako zerbitzuen kasuan.
- Zerbitzu eta baliabide komunitarioak ezartzea bizitza pertsonala, laborala eta familiakoa kontziliatu ahal izateko, udal mailako zerbitzuen kasuan.
- Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko lanean dabiltzan erakunde publiko eta pribatuekiko lankidetzak sustatzea eta parte-hartze harremanak ezartzea.

- Tokiko mailan sexuagatik gertatzen diren diskriminazio egoerak antzematea, eta egoera horiek desagerrarazteko neurriak hartzea.
- Beren eskumenen barruan eman ahal zaien beste edozein funtzio.

Legean, Gizon eta Emakumeen berdintasunerako EAEko VII. Planaren egitura eta diseinuari buruzko lau funtzio oinarrizko ezarri dira:

- Planaren lanketan aginte publikoen egitekoa arautu behar duten oinarrizko printzipioak ezartzeko funtzioa (Legearen atariko izenburua).
- Euskal administrazio eta botereen jardueran genero ikuspegia integratzeko neurriak arautzea (I. eta II. izenburuak).
- Esku-hartze arlo desberdinetan berdintasuna sustatzeko neurrien funtzio egituratzailea (III. izenburua).
- Zigorren arautzea (IV. izenburua).

### **Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legearen aldaketa**

Gobernu Kontseiluak 2020ko urtarrilak 28ko bileran Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen bigarren aldaketaren lege-proiektua onartu du. Aldaketaren arrazoia izan da berdintasun-politikak eta indarkeriaren kontrako politikak indartzearen beharra eta testuinguru sozial eta arauemaile berriaren ondoriozko behar eta erronka berrietara egokitu beharra (Istanbulgo Hitzarmena, 2030 Agenda, Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna ...).

Legeak berdintasun-politikak garatzeko baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak indartzea aurreikusten du, honako hauetan islatzen direnak, besteak beste: berdintasun-egiturak indartzea, langile publikoak berdintasunean prestatzeko betebeharra, guraso-baimen berdinak eta besterenezinak orokortzea, soldata-arrakalari aurre egiteko neurriak gehitzea, emakumeen aurkako indarkeriaren mota guztietako biktimentzako laguntzak zabaltzea, epai judizialean aurreikusitako kalte-ordainak jaso ez dituzten biktimentzat, bai eta indarkeria matxistaren ondorioz umezurtz geratu diren seme-alabentzat ere.

### **Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Gipuzkoako Foru Aldundiren III. Plana 2020-2023**

#### **Gobernu Ona**

Gobernu onari lotutako esku-hartze ildoari dagokionez, berdintasun politikak "zeharkakoak" izatea bultzatuko du. Ardatz horrekin lotuta, besteak beste, foru erakundeko langileen berdintasunaren arloko prestakuntza zabalduko da. Berdinbidean programa berrituko dute, 10.000 biztanle dituzten



Gipuzkoako udalerrri eta mankomunitateetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak garatzeko.

### **Emakumeen ahalduntzea**

Emakumeen ahalduntze "soziala eta kolektiboa" ere planaren "funtsezko" ildo da. Giza eskubideak eta kultura politiko demokratikoa lortzen lagundu duten Gipuzkoako emakumeen bizi-ibilbideak eta ibilbide profesionalak aztertuko dira. Gainera, jendartea eta politikaren eremuetan emakumearen partaidetza sustatzeko neurriak aktibatuko dira.

### **Jendartea eta ekonomia eraldatzea**

Gipuzkoako jendartea eta ekonomia eraldatzeko bilaketan, beharrezkoa da genero-desberdintasunen oinarrian dauden balioak "zalantzan jartzea", bai eta berdintasunaren aitopenean aurrera egitea ere.

### **Indarkeria matxistarik gabeko gizartea**

Aldundiak historikoki indarkeria matxistaren aurka egindako "lan eskergarekin" jarraitu behar da. Horretarako, arlo horretako ikerketa sustatuko da, sensibilizazio-, prebentzio- eta prestakuntza-ekintzei eutsiko zaie, eta etengabeko hobekuntza eta erakundeen arteko koordinazioa bultzatuko dira.

## **Gizon eta Emakumeen arteko EAEko VII. Berdintasun Plana**

Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunerako VII Planaren helburua zera da: botere publikoei orientazioa ematea, beren lanaren bidez balioak aldatzeko; hau da, emakumeak bizitzaren eremu guztietan dauden mendekotasun egoerak justifikatzen dituzten eta mantentzen dituzten balio horiek aldatzeko. Izan ere, gizonek dute erabateko presentzia esparru gehienetan, baina emakumeak botere egoeran badaude ere, patriarkatuak beren bizimodua baldintzatzen du, unibertatsala baita.

Balio aldaketa hori ezinbestekoa izango da gizakion garapen iraunkorra lortzeko. Horretarako, sexismoak, matxismoak eta androzentrismoak ukitu gabeko balio berriak eraiki behar ditugu; hau da, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna txertatu eta garatzeko aukera emango diguten printzipio filosofiko, etiko eta politikoak landu, emakumeen eskubideak errespetatu eta beren herritar izaera sustatzeko.

Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasuna gauzatzeko 4/2005 Legeak jasotzen duen berdintasunaren inguruko kontzeptua erreferentzia moduan hartuz, eta arau horren arabera aginte publikoen berdintasun arloko lanak izan beharreko printzipio orokorrak kontuan izanda (tratu berdintasuna,

aukera berdintasuna, aniztasuna errespetatzea, genero ikuspegia txertatzea, ekintza positiboa, sexuaren araberako rola eta estereotipoak baztertzea, ordezkaritza orekatua eta koordinazio eta lankidetzak), Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako EAEko VII Planak jasotzen duen lan-agendak horietako batzuetan sakondu du, proposatutako lanerako izaera estrategikoagatik:

- **PARADIGMA FEMINISTA:** Feminismoa, pentsamendu feministaren ildo guztiak eta horren dimentsioak barne hartuz, gizon eta emakumeen arteko desberdintasun egoerak eta diskriminazioak zergatik eta nola ematen diren ulertu ahal izateko.
- **GENERO IKUSPEGIA:** Genero ikuspegiak, analisi eta lanerako metodologia moduan, generoen arteko desberdintasunak ikusarazten laguntzen digu. Genero ikuspegia hartzeak emakumeen aurkako diskriminazioaren aurka posizionatzen den AGENDA BAT PRESTATZEA eskatzen du.
- **ALDAGAIEN ARTEKO IZAERA:** generoarena beste desberdintasun egoera batzuekin batera aldagaien arteko elkarreraginean dagoena aitortzea. Patriarkatuan, emakumeek genero identitate bat partekatzen dute, baina ez diote identitate zeinu bakar bati erantzuten. Hori dela eta, emakumeen artean ere, beren aniztasunaren ikuspegitik, desberdintasuna egoerak daude, beste diskriminazio iturri batzuen ondorioz, hala nola hizkuntza, klasea, etnia, aukera sexuala, adina, aniztasun funtzionala eta abar.
- Emakumeen ahalduntzea ezinbesteko baldintza da berdintasuna lortzeko: HELBURUA, TRESNA eta PROZESUA ere bada. Hainbat mailatan eman behar da (pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa) eta eremu desberdinetatik egin behar zaio ekarpena xede horri (politiko instituzionala, antolakuntzaren arloa, soziala eta herritarra). Nazioartean hitzartutako garapen eta iraunkortasun helburuak lortzeko eta emakume eta neskatilen bizi-kalitatea hobetzeko, ahalduntzea bideratu behar dugu (GIH 2030).
- **GARAPEN IRAUNKORRA:** Giza garapen globala iraunkorra izateko eta egiturazko aldaketak sustatzeko, ingurumen, jendarte eta ekonomiaren dimentsioek genero ikuspegia eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna barneratu behar dute.

VII. Planean proposatutako ekintzaren oinarri diren printzipio horiez gain, honako bermeak ezartzen dira, jarduerak eraginkorrak izateko eta aurreikusitako eragina lortzeko:

1. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunarekiko konpromiso politiko errealak.
2. Aurrekontu baliabide, giza baliabide eta baliabide teknikoak berdintasun arloko politika publikoen eskura jartzea.

3. Diru publikoa erabilia berdintasunaren alde egindako lanari buruzko informazioa eta gardentasun politika.
4. Emakumeen mugimenduetan, eragile ekonomiko eta sozialetan parte hartu eta solaskide moduan aritzea; parte-hartze demokratikoago baten ikuspegitik lan egitea, ekarpenak aintzat hartuz eta horien eragina errealitatera eramanez.
5. Erakunde guztien arteko lankidetzeta eta erantzukidetasuna lantzea eta, horien barruan, sail eta departamenduen artekoa ere, berdintasunaren gaia lantzeko xedez.

### **Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako**

2007ko martxoaren 23ko BOEn argitaratutako Legeak, alde batetik, honako premisa dauka abiapuntu: gizon eta emakumeen arteko berdintasuna *“printzipio juridiko unibertsal bat da, giza eskubideei buruzko nazioarteko hainbat testutan aitortua”*. Bestalde, esaten da legearen aurrean berdintasun formala aitortzea oinarrizko aspektua dela, eta arauen bidez hobetu behar dela: *“oraindik ere, sexu arrazoiengatiko diskriminazio zuzena zein zeharkakoa islatutako ekintza guztien aurka lan egiteko eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko, hori lortzeko oztopo eta estereotipo sozialak gaindituz”*.

Oinarrizko printzipioak honakoak dira, beste batzuen artean: “Ekintza Positiboa”, “Ordezkaritza Orekatua” eta “Zeharkakotasuna”.

21.1 artikulua zera adierazten du: *“tokiko erakundeek berdintasun eskubidea integratuko dute eskumenetan eta, zentzu horretan, Administrazio Publikoekin lan egingo dute”*. Horrela izanik, 3/2007 legeak Tokiko Administrazioen berezko eskumenak hartzen ditu erreferentzia moduan, modu orokorrean apirilaren 2ko 7/1985 Legean esleituak, Tokiko Erregimeneko Oinarriak Arazten dituen, eta euskal udalerrien kasuan, otsailaren 18ko 4/2005 Legean zehaztuta, Gizon eta Emakumeen berdintasunerako legea, hain zuzen ere.

### **Lanean eta enpleguan emakumeen eta gizonen arteko aukeren eta tratabideen bermerako premiazko neurriei buruzko martxoaren 1eko 6/2019 Lege-Dekretua**

Lege-Dekretu honek dauzkan zazpi artikuluek lege-lerruneko arau bana aldatzen dute, arau horiek zuzenean dagozkiolarik emakumeen eta gizonen berdintasunari. Horietako batzuk dira, besteak beste, Berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoa edo Langileen Estatutuaren Legea. 2019ko martxoaren 8an hasi zen indarrean, salbuespenak direlarik apirilaren 1ean hasi zirenak.

## Tokiko bizimoduan Gizon eta Emakumeen Berdintasuna ezartzeko Europako Karta

Tokiko Bizimoduan Gizon eta Emakumeen Berdintasuna ezartzeko Europako Karta Europako Eskualde eta Udalerrien Kontseiluak sustatu zuen, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Ekintza Komunitarioaren V Programaren testuinguruan, eta hartzaileak “Europako tokiko eta eskualde mailako gobernua dira, gizon eta emakumeen berdintasunaren printzipioaren inguruan jarrera publiko bat hartu eta karta bera sinatzera gonbidatzen zaie, bertan definitzen diren konpromisoak beren lurraldeetan aplikatu ditzaten”.

EUDEL (Euskal Udalerrien Elkarte) da proiektuko bazkideetako bat eta gero eta euskal udal gehiago ari dira Karta sinatzen. Karta horrekin bat egin duten udalek honako konpromisoa hartu dute: bi urtetan, berdintasunaren inguruko ekintza plan bat ezartzea, modu parte-hartzailean diseinatua eta ebaluazio irizpideekin lotutako eta hori ezartzeko baliabide nahikoak izatea. Gainera, Udalek plana martxan jartzeko baliabide nahikoak ere izan behar dituzte. Europako Kartaren arabera, tokiko eta eskualde mailako agintariak “esku-hartze organo egokienak dira bizirik jarraitzen duten desberdintasun egoera horien aurka lan egiteko eta berdintasunaren oinarritutako jendarte bat sustatzeko”.

Aipatu arauak Berdintasun Printzipioetan oinarritzen dira, hau da, honakoetan:

*(Gizon eta emakumeen berdintasunerako 4/2005 Euskal Legea).*

1. – TRATU BERDINTASUNA. Sexuan oinarritutako edozein diskriminazio mota debekatuta dago, zuzena zein zeharkakoa.

Lege horren arabera:

- a) Diskriminazio zuzentzat hartuko da honakoa: egoera berdinean pertsona bat desberdin tratatzea, okerrago tratatzea, arrazoia sexua izanik edota sexuarekin zuzenean erlazionatutako aspektuak, hala nola haurdunaldia edo amatasuna. Delitu gisa tipifikatuta dago eta, gainera, laneko sexu jazarpenera sexuagatiko diskriminazio zuzena da.
- b) Zeharkako diskriminazio kasutzat hartuko dira honakoak: itxuraz neutroa den ekintza juridiko, irizpide edo praktika batek sexu bereko kideen proportzio handiagoa bati egiten dionean kalte, salbuespen honekin: ekintza juridiko, irizpide edo praktika hori egokia eta beharrezkoa izatea eta sexuarekin zerikusirik ez duten irizpide objektiboen bidez justifikatu ahal izatea.

Euskal aginte publikoek ezingo dute sexuagatiko diskriminatzailea den jarduera bati inolako laguntza edo diru-laguntzarik eman, eta sexu arrazoietan oinarritutako diskriminazio ekintzaren bat burutzeagatik zigorren bat jaso duten pertsoneri ere ez diete laguntzarik emango, zigor horrek iraun bitartean.

Euskal aginte publikoek bermatu egin beharko dute diskriminazio anitzak sufritzen dituzten emakumeek edo emakume taldeek beren eskubideak gauzatu ahal izatea, generoaz gain, beste faktore batzuk tartean daudenean, esaterako: arraza, etnia, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edota bestelako iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu orientazioa edo bestelako zirkunstantzia sozial edo pertsonalen bat.

2. – AUKERA BERDINTASUNA. Euskal botere publikoek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte zera bermatzeko: gizon eta emakumeek aukera berdintasunean gauzatzen dituztela eskubide politiko, zibil, ekonomiko, sozial eta kulturalak eta gainerako oinarritzko eskubideak, arauetan aitortuta dauden moduan, baita onura eta baliabide ekonomiko eta sozialak lortzeko aukera ere. Lege horren arabera, berdintasuna osotasunean ulertu behar da; ez soilik baliabide eta onurak eta botereak lortzeko bidearen abiapuntu gisa; behin lortuta, horiek garatzeko baldintza eta kontrolari dagokionean ere.

Era berean, euskal botere publikoek bermatuko dute Lege honetan araututako baliabide eta eskubideak lortu edo gauzatzeko bidean ez dela irisgarritasun oztoporik, abenduaren 4ko 20/1997 legean (Irisgarritasuna sustatzeari buruzkoa) aurreikusitako bezala.

3. ANIZTASUNA ETA DIFERENTZIA ERRESPETATZEA. Aginte publikoek beharrezko baliabideak jarri beharko dituzte, berdintasuna lortzeko prozesuan gizon eta emakumeen artean dauden aniztasun eta desberdintasun faktoreak errespetatzeko, hala nola biologiaren, bizi-baldintzen, aspirazio eta beharizanekin lotutakoak eta emakume eta gizonen kolektiboen barruan egon daitezkeen aldeak eta aniztasuna errespetatzeko ere.

4. - GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA Euskal aginte publikoek genero ikuspegia txertatu beharko dute politika eta ekintza guztietan; horrela, desberdintasun egoerak desagerrarazi eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko helburu orokorra sustatuko da.

Lege horren arabera, “genero ikuspegia txertatzeaz” ari garenean, esan nahi dugu gizon eta emakumeen egoera, baldintza, aspirazio eta beharriak sistematikoki kontuan hartuko direla,

desberdintasunak desagerrarazi eta politika eta ekintza guztietan berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduerak bideratuz, maila guztietan eta plangintza, exekuzio eta ebaluazio aldietan.

5. – EKINTZA POSITIBOA. Gizon eta emakumeen berdintasuna lortzeko, aginte publikoek neurri espezifikoak eta aldi baterako neurriak hartu behar dituzte, bizitzaren arlo desberdinetan existitzen diren sexuagatiko desberdintasun egoerak desagerrarazteko helburuarekin.
6. - SEXUAREN ARABERAKO ROL ETA ESTEREOTIPOAK DESAGERRARAZTEA Euskal aginte publikoek sexuan oinarritutako rol eta estereotipoak desagerrarazteko helburua sustatu behar dute; izan ere, rol horien arabera, emakumeei esleitu zaie etxeko lanen eta zainketa lanen ardura, eta gizonen eremu publikoko egitekoen ardura, horrek dakarren errekonozimendu sozial, politiko eta ekonomikoaren desorekarekin.
7. - ORDEZKARITZA OREKATUA. Euskal aginte publikoek kasu bakoitzean dagozkion neurriak hartu beharko dituzte, erabakiak hartzeko organoetan gizon eta emakumeen ordezkariak orekatua izan dadin. Lege horren arabera, ulertzen da ordezkariak orekatua dela sexu biak gutxienez % 40an ordezkariak daudenean.

### 03.PLANAREN EZAUGARRIAK

Planaren helburu nagusia udal kudeaketan genero ikuspegia txertatzea da. Horretarako, toki mailan berdintasun politikak martxan jarri behar dira, arauzko berdintasunaren eremutik harago, eta aukera eta emaitza berdintasun erreala bermatzeko xedea duten ekintzak burutu behar dira. Honako ezaugarriak ditu:

Lau urteko indarraldia dauka, 2021-2025 aldirako diseinatua dago.

Aldez aurretik egindako ebaluaketarekin, datuen eguneraketarekin eta aurreko planarekin erlazionatuta egin da, modu parte-hartzailean, udal langileekin eta udalerriko gizarte eragileekin batera.

Plan irekia eta malgua da, urteko planak definitzeko.

Ebaluatu daitekeen plana da, eta lortzen diren helburuak neurtzen joateko adierazleak kontuan hartu dira.

Aurreikusitako denboran eta eskura dauden baliabideak kontuan izanda landu da eta Udal arlo guztiek eta erakundeek garatzeko helburu eta ekintzak jaso ditu.

Udalerri mailako tresna bat da eta konpromiso politikoa, teknikoa zein herritarra ere eskatzen du.

## 04. II PLANAREN EBALUAKETAN ETA DIAGNOSTIKOAN JASOTAKO HOBEKUNTZA EREMUAK

Oro har, II Planaren betetze-maila ez da izan oso altua. Gaiarekiko interesa eta konpromiso sendoa oraindik ez dela lortu esan ahal da. Hala ere, udaleko hainbat arlotan genero ikuspegia txertatu dute baina oraindik genero ikuspegia asko landu behar da departamentu guztietan, kultura eta hirigintzan esaterako.

Arlo guztiek barneratu behar dute berdintasuna denon funtzioa dela eta badirudi kontu asko berdintasun arloari soilik egozten zaizkiola.

Hala ere, urteen perspektibarekin ikusita, udalean ekimen ugari eta estrukturalak egin dira II lanarekin alderatuta, besteak beste, berdintasun teknikaria dago, aurrekontu propioa du eta koordinaziorako egiturak daude.

Beste konstante bat Planak herrian izan duen inpaktu txikia da. Gutxi ezagutzen da eta ez dira programarik landu emakumeen jabeakuntzarako.

Oraindik behar handia dago egiteko eta hurrengo landu eta indartu behar da:

- udal politika eta programetan genero ikuspegia txertatzea.
- pertsonei sexuaren arabera egotzitako genero estereotipoak eta rolak eraldatzea.
- emakumezkoen boteretze-prozesuak laguntzea.
- udal, enpresa zein herritarren artean kontziliazio erantzunkidearen zein zaintzaren etika bultzatzea.
- indarkeria matxistaren inguruan ezagutza eta sentsibilizazioa handitu eta biktimekiko arreta hobetzea.

COVID-19aren ondorioz, premiazkoa da genero-ikuspegia txertatzen duten neurriak hartzea III Planaren indarraldian, krisi honek desberdintasunak areagotzea eta emakumeen eskubideen erabileran eta berdintasunerako bidean atzera egitea saihesteko.



Ondoren, diagnostikoan jasotako beharrianak azalduko dira, lau esparru nagusitan bereizita, Gizon eta Emakumeen berdintasunerako EAEko VII planean aurkeztutako esku-hartze eremuen arabera:

- GOBERNU ONA BERMATZEKO PROGRAMAK ETA NEURRIAK.
- EMAKUMEEN AHALDUNTZEA.
- EKONOMIAK ETA JENDARTEAREN ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO.
- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZIMODUAK.

### GOBERNU ONA

- Udal konpromisoa sendotzea.
- Berdintasun arloa sendotzea.
- Berdintasun Mahaia sortzea.
- Aurrekontua handitzen joatea.
- Genero ikuspegia gehiago lantzea lan-prozeduretan (datuak, Komunikazioa, kontratazioa, aurrekontuak...) eta lan sektorialetan (jaiak, hirigintza, kirola...).
- Formakuntza indartu behar da beharrei egokitutako formakuntza espezifikoa antolatuz arloz-arlo.

### EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

- Jabekuntza lantzeko programa lantzea.

### EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA

- Haur, guraso, elkarte eta herritar orori zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak egitea, jendartean dauden estereotipo eta aurre iritzi guztiak gainditzeko.
- Zaintza jendartearen erdialdean jartzeko sentsibilizazioa eta baliabideak sustatzea.
- Hezkidetzeta mahaiak urteko programa bat izatea.

### EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta eta babesa ematen jarraitzea.
- Indarkeria matxistarik gabeko udalerrri bat bermatzeko baliabide eta tresnak garatzen jarraitzea.
- Indarkeriarik gabeko jarrera ereduak sustatzea eta emakumeenganako indarkeriazko jarreraren prebentzioan lan egiten jarraitzea.

## 05. 2021-2025 EKINTZA PLANA

Lezoko Udalaren Berdintasun Plana honela egituratzen da: 4 esku-hartze esparru, 8 helburu eta 50 ekintza ditu.

ARDATZA	HELBURUAK	EKINTZAK
<b>Gobernu ona</b>	2	21
<b>Emakumeen ahalduntzea</b>	1	7
<b>Ekonomiak eta jendartearen antolakuntza eraldatzea, eskubideak bermatzeko</b>	3	11
<b>Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizimoduak</b>	2	11
<b>GUZTIRA</b>	<b>8</b>	<b>50</b>

ARDATZA	HELBURUAK
<b>Gobernu ona</b>	G1: Berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa eta teknikoa handitzea. G2: Genero ikuspegia txertatzea lan-prozeduretan.
<b>Emakumeen ahalduntzea</b>	E1: Emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoari lagundu, aniztasuna kontuan hartuta.
<b>Ekonomiak eta jendartearen antolakuntza eraldatzea, eskubideak bermatzeko</b>	JA 1: Herritar eta eragileek berdintasunari dagokionez daukaten sentsibilizazio maila hobetu. JA 2: Herritarrak eta udal langileak sentsibilizatzea zainketen balioaren eta erantzunkidetasunaren garrantziaren inguruan. JA 3: Emakumeen lan baldintzak hobetu.
<b>Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizimoduak</b>	I1: Indarkeria matxistaren biktimekiko arreta hobetzea. I2: Indarkeria matxistaren inguruan ezagutza eta sentsibilizazioa handitu herritarren artean.

# GOBERNU ONA

## G1: Berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa eta teknikoak handitzea.

EKINTZAK	2021	2022	2023	2024	2025	Arduraduna	Adierazleak
1. Berdintasunerako ordenantza egin.						Alkatetza	Berdintasun ordenantza eginda
2. Epaimahai, zuzendaritza organo eta parte-hartze organoetan gizon eta emakumeen arteko oreka neurtu eta betetzen ez bada neurri zuzentzaileak jarri.						Alkatetza	Epaimahai, zuzendaritza organo eta parte-hartze organo kopura eta orekaren portzentaia
3. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruko prestakuntza saioak antolatzea udal langileentzat eta kargu politikoentzat, mailak bereizita (oinarrizko eta berriazko prestakuntza).						Berdintasuna	Antolatutako ordu kopurua Parte hartzea sexuz eta sailka
4. Berdintasunerako Barne Plana egitea.						Alkatetza	Barne Plana eginda

## G2: Genero ikuspegia txertatzea lan-prozeduretan.

EKINTZAK	2021	2022	2023	2024	2025	Arduraduna	Adierazleak
5. Udal sailetakoko memoriak egitea, sexuaren arabera banatutako datuak ustiatuz						Sail guztiak	Betetze maila sail bakoitzean (1/asko; 2/erdizka; 3/gutxi)
6. Sexuaren aldagaia barne hartzen jarraitzea, udal programa guztien onuradunen informazio-bilketan, ez binario kategoriatan sartuz.						Sail guztiak	Betetze maila sail bakoitzean (1/asko; 2/erdizka; 3/gutxi)
7. Arlo guztietako programa eta baliabideetako parte-hartzea, sexuaren arabera bereizita egiten jarraitzea.						Sail guztiak	Betetze maila sail bakoitzean (1/asko; 2/erdizka; 3/gutxi)
8. Herritarrei zuzendutako informazio ofiziala lengoia inklusiboan egiten jarraitzea.						Sail guztiak	Betetze maila sail bakoitzean (1/asko; 2/erdizka; 3/gutxi)
9. Udaleko komunikazio enpresaren jarraipena egitea genero ikuspegia sustatu dezan.						Kultura, Euskara eta berdintasuna	Genero ikuspegiaren txertaketa (1/asko; 2/erdizka; 3/gutxi)
10. Udal webguneko pertsonaien atala berraztertzea eta herriko emakumei lekua ematea.						Kultura eta Berdintasuna	Pertsonaien atala berriztatuta Herriko emakume kopurua
11. Berdintasun arloko memoria herrian zabaltzea formatu berritzaileak eta erakargarriak erabiliz.						Berdintasuna	Memoria herrian zabalduta
12. Etengabeko aholkularitza zerbitzuarekin jarraitu, lengoia barneratzailearen inguruan sor daitezkeen zalantzak argitzeko						Berdintasuna	Egindakoaren ebidentziak jaso
13. Berdintasun Planaren aurrerapenei buruzko informazioa ematea, aldian-aldian, udal langileei.						Berdintasuna	Egindakoaren ebidentziak jaso
14. Udaleko barne komunikaziorako Berdintxokoa, aktibatzea, tresnak eta informazioa konpartitzeko gunea.						Berdintasuna	Berdintxokoa sortu da

Lezoko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana 2021-2025

EKINTZAK	2021	2022	2023	2024	2025	Arduraduna	Erakusleak
15. Sortzen diren ordenantza berrietan generoaren araberako eraginaren ebaluazioak egitea.						Idazkaritza eta arloko arduradunak	Onartutako ordenantza kopurua eta genero ikuspegia landuta dutenen portzentaia
16. Aurrekontuek berdintasunean duten eraginaren aurretiko balorazioa egitea.						Kontu-hartzailletza eta arlo arduradunak	Aurrekontuen aurretiko balorazioa eginda
17. Aurrekontuetan berdintasuna sustatzeko neurriak txertatzea.						Kontu-hartzailletza eta arlo arduradunak	Aurrekontuetan berdintasuna sustatzeko neurri kopurua eta mota
18. Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasun-klausulen kopurua berrikustea eta handitzea.						Idazkaritza eta arloko arduradunak	Berdintasun klausulak txertatuta duten diru laguntza, kontratu eta hitzarmen kopurua
19. Berdintasunerako klausulak txertatutako kontratu, diru-laguntza eta hitzarmen jarraipena egitea .						Idazkaritza eta arloko arduradunak	Betetze maila (1/asko; 2/erdizka; 3/gutxi)
20. Enplegu publikora sartzeko hautaketa-prozesuetako gaitzerrendetan emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioari, administrazio-jardueran duen aplikazioari eta indarkeria matxistaren arretari eta prebentzioari buruzko edukiak sartzea.						Idazkaritza	Egindako hautaketa prozesu kopurua eta gaitegian berdintasuna txertatuta dutenen portzentaia
21. Udal langileen erregistroa sortzea, kategoriak, mailak, lanaldi mota eta bestelakoak sexuaren arabera sistematikoki jasoz.						Giza Baliabideak	Erregistroa sortu da

# EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

## E1: Emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoa sustatu, aniztasuna kontuan hartuta.

EKINTZAK	2021	2022	2023	2024	2025	Arduraduna	Erakusleak
22. Ahalduntze-jarduerak antolatzea, ikuspegi intersektionalari eutsiz (adinekoak, gazteak, LGTBQ+, migratuak, dibertsitate funtzionala)						Gizarte zerbitzuak eta Berdintasuna Gaxuxa	Partehartzaileen kopurua adinez, jatorriz, aniztasun funtzionalez Ekimenen balorazioa
23. Lezon erabakiak hartzen diren espazioetan emakumeen parte-hartzea aztertzea eta ekintza plana zehaztea.						Berdintasuna	Azterketa eginda eta ekintza plana zehaztuta Partehartzea sexuz
24. Lezoko historian emakumeek betetako rola inguruko ikerketa lana abiatzea eta hori ikustarazi eta zabaltzea.						Kultura	Ikerketa eginda eta zabalduta Partehartzea sexuz
25. Emakume baseritarrei egindako lana aitortzeko ekimenak bideratzea (omenaldiak, eskultura jarri...).						Kultura	Egindako ekintza kopurua Partehartzea sexuz
26. Liburutegirako fondoak erosterakoan genero-ikuspegiarekin egitea eta bertan atal feminista sortzea.						Kultura, liburutegia	Atal feminista sortuta Fondoko produktuak egileak sexuka
27. Udalerriko kale edo eremu publiko berriak izendatzerakoan emakumeen izenak kontuan izatea.						Alkatetza	Izendatutako kale berriak, sexuka Emakumeen izenen proposamen kopurua
28. Lilaton eta herri-lasterketetan parte hartzeko taldea osatu eta trebatzea.						Kirola	Partehartzaile kopurua

# EKONOMIA ETA JENDARTEAREN ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO

JA 1: Herritar eta eragileek berdintasunari dagokionez daukaten sentsibilizazio maila hobetu.

EKINTZAK	2021	2022	2023	2024	2025	Arduraduna	Erakusleak
29. Hezkidetzeta mahaiaren programa landu urtean zehar.						Berdintasuna, ikastetxeak, Kuadrillategi, osasun zentroa, kale hezitzaileak...	Proposatutako eta gauzatutako ekimenen kopurua Partehartzea sexuz Ekimenen balorazioa sexuz
30. Berdintasunari buruzko prestakuntza antolatu udalerriko elkarteei begira.						Berdintasuna, herriko elkarte eta eragileak	Formazioaren ordu kopurua Partehartzea sexuz Ekimenen balorazioa sexuz Jardundako elkarteen esparrua
31. Berdintasunarekin erlazionatutako data garrantzitsuetan sentsibilizazio kanpainak antolatzen jarraitzea.						Berdintasuna, ikastetxeak, elkarteak, emakumeak, beste eragileak...	Kanpainen balorazioa Eragileen esparrua
32. Maskulinitate berrien inguruan gizonduz programa garatzea heteronormatibitatea gainditzeko.						Berdintasuna, ikastetxeak, elkarteak	Formazioaren ordu kopurua Partehartutakoen kopurua Balorazioa

JA 2: Herritarrak eta udal langileak sentsibilizatzea zainketen balioaren eta erantzunkidetasunaren garrantziaren inguruan.

EKINTZAK	2021	2022	2023	2024	2025	Arduraduna	Erakusleak
33. Udal langileek hartutako bateragarritasun baimen/neurrien erregistroa egin sexuka						Giza Baliabideak	Erregistroa eginda
34. Bateragarritasunerako ohikoak ez diren neurriak aztertu eta abiatu: ordutegi aldaketak eta telelana, esaterako						Alkatetza eta Giza Baliabideak	Bateragarritasunerako ohikoak ez diren neurri kopurua Neurriak hartutakoen kopurua sexuka
35. Lezoko zaintza beharren inguruko mapa egitea.						Gizarte zerbitzuak	Mapa eginda
36. Generoaren araberako okupazio-arrailek murrizteko programak antolatzea.						Giza Baliabideak, Oarsoaldea, Gizarte Zerbitzuak	Ekintzen kopurua eta esparrua Balorazioa sexuz

### JA 3: Emakumeen lan baldintzak hobetu.

EKINTZAK	2021	2022	2023	2024	2025	Arduraduna	Erakusleak
37. Lana sustatzeko programetan kontratatutako lagunak sistematikoki zenbatzea, sexua bereizita, esparruan dagoen erraila gutxitze aldera.						Giza Baliabideak	Lana sustatzeko programen partehartzea sexuz, esparrua eta arraia (Gizonak - emakumeak)
38. Pobrezia eta gizarte-bazterketako arriskuan edo egoeran dauden emakumeekin enplegua sustatzeko programak garatzea genero-ikuspegitik.						Giza Baliabideak, Oarsoaldea, Gizarte Zerbitzuak	Garatutako programa kopurua Okupazio esparrua
39. Covid 19ak zaintzan eragindako inpaktua neurtzea eta neurri zuzentzaileak ezartzea.						Alkatetza	Neurketa eginda Neurri zuzentzaile kopurua

# INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZIMODUAK

## 1: Indarkeria matxistaren biktimekiko arreta hobetzea.

EKINTZAK	2021	2022	2023	2024	2025	Arduraduna	Erakusleak
40. Indarkeria matxistaren prebentzio eta arreta protokoloaren jarraipena egin eta hobekuntzak jaso.						Gizarte zerbitzuak, udaltzaingoa eta berdintasuna	Protokoloaren hobekuntza kopurua eta mota
41. Indarkeria matxistaren urteko kasuen jarraipena egiten jarraitzea.						Gizarte zerbitzuak, udaltzaingoa eta berdintasuna	Txostena egin izana eta kasuen bilakaeraren azterketa
42. Eraso matxistei erantzun instituzionala emateko protokolo eta larrialdi mahai teknikoa kudeatzen jarraitzea.						Alkatetza	Kasu kopurua urteko
43. Langileak kontratatze eta komunitatearentzako lanak egitea eskatzen dutenentzako protokoloa eta hortik eratorritako mahaia sistematizatzea.						Idazkaria, udaltzaingoa, gizarte zerbitzuak eta berdintasuna	Ebidentziak jaso
44. Indarkeria matxistaren biktimen autolaguntza taldearekin jarraitu.						Gizarte Zerbitzuak eta berdintasuna	Urteko datuak eta zerbitzuaren memoriak

## 12: Indarkeria matxistaren inguruan ezagutza eta sentsibilizazioa handitu herritarren artean.

EKINTZAK	2021	2022	2023	2024	2025	Arduraduna	Erakusleak
45. Indarkeria Matxistaren aurrean jardunbide protokoloa herritarren artean zabaldu.						Gizarte zerbitzuak, udaltzaingoa eta berdintasuna	Zabalpena eginda
46. Indarkeria Matxistaren aurrean baliabideen informazioa herritarren artean zabaldu.						Gizarte zerbitzuak, udaltzaingoa eta berdintasuna	Informazioa zabaldua
47. <i>Beldur Barik</i> programa garatu eta sendotzea.						Euskara, ikastetxeak, kuadrillategi	Partehartzea sexuz Ekintza kopurua Balorazioa sexuz
48. Puntu Ilunen azterketa aldizka egitea.						Hirigintza	Azterketa eginda Puntu ilunen kopurua
49. Azaroaren 25eko programa antolatzea						kultura, kirola, euskara, jendarte eragileak, Berdintasuna	Ekintza kopurua Balorazioa
50. Jaietako eraso sexisten aurkako urteko kanpainak antolatzea (ekitaldi handietan)						Kultura, jai batzordea, elkarteak eta berdintasuna	Erasoen kontrako kanpaina kopurua



## 06. PLANAREN KUDEAKETA

### Koordinazioa eta programazioa

Gizon eta emakumeen berdintasunerako Foru eta Tokiko Administrazioen 4/2005 Legearen 10. Artikuluan jasota dagoenaren arabera, erakunde horiek beren egiturak egokitu behar dituzte eta horietako bakoitzean gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako politiken programazio, aholkularitza eta ebaluazioaz arduratuko den organismo edo atal bat egon beharko da.

Plan honen ekintza programaren ondoriozko jarduera eta helburuak lortzeko, horren barneko sustapen, jarraipen eta ebaluaziorako egiturak ezarrita egon behar dira. Sustapenaren egitura Berdintasun Arloan kokatua dago eta Berdintasun teknikaria eta Alkateak osatzen dute.

III Planaren indarraldian, udal barruan berdintasun arloko teknikariaren figura sendotuko da, bere lanaldia handituz/ eta Berdintasun arloari berezko espazioa ematez eragileek eta emakume taldeek udalean berdintasunarekin lotutako erreferentziatzko toki bat izateko.

Honakoak dira Udaleko sustapen egituraren funtzioak:

- Urteko lehentasunak zehaztea.
- Jarduerak planifikatzea, dauden baliabideen arabera (ekonomikoak, langile arlokoak eta abar).
- Jarduerak martxan jarri eta ardurak banatzea.
- Jardueren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Planaren “deskargua” egin.

Sustapen egiturak aldizkako bilerak ezarriko ditu, dagozkion jarduerak planifikatu eta martxan jartzeko.

Bestalde, berdintasun arloak Sailburuen Koordinazio Batzordean (SKB) partehartuko du genero ikuspegiaren txertaketa bultzatzeko eta berdintasun mahai teknikoarekin jarraituko da.

Herri koordinazioa aurrera eramateko, Berdintasun Kontseilua martxan jarri eta kudeatuko da eta Hezkidetza mahaia kudeatzen jarraituko da. Berdintasun Planaren jarraipena egingo da eta proposamenak eta iradokizunak jasoko dira. Foro hauek berdintasunaren printzipioa urratzen duten

edota emakumeak diskriminatzen dituzten jokabideen salaketak jaso eta bideratzeko gunea izango da ere.

Bestalde, Udalak erakunde arteko koordinazio egituretan parte hartzea sustatuko du, hala nola Berdinsarea eta Gipuzkoako berdintasun teknikarien sarean.

III. Planaren programaziorako, Aurreko hiruhilekoan Urteko Programa Operatiboak burutuko dira. Berdintasun Kontseiluarekin eta Hezkidetzeta Mahaiarekin eta udal barneko koordinaketarako egiturekin batera lan egingo da.

### Planaren Ebaluazioa

Berdintasun Planaren etengabeko ebaluazioa egingo da, eta urteko memoria bat. Ebaluazioa hainbat mailatan egingo da:

- Burutze-mailari dagokionez: jarraipen kuantitatiboa egingo da, plan eragileari jarraituz, honako aldagaiak kontuan izanik:
  - Egina
  - Partzialki egina
  - Egin gabea
  - Egina baina ez planifikatua
  - Arrazoiak
- Prozesuaren ebaluazioa: ezarpen prozesuaren indargune eta hobetzeko puntuak aztertuko dira, langile tekniko, politiko eta gizarte eragileei galdetuz. Honako eremuei emango zaie garrantzia: inplikazioa, lan eta koordinaziorako tresnak, komunikazioa, parte-hartze prozesuak eta abar.
- Eraginaren ebaluazioa: berdintasun politiken ondorioak aztertuko dira eta emakume eta gizonen arteko berdintasun arloan burututako aurrerapenak neurtuko dira. Plan honen baitan planaren inpaktua neurtzea oso alor garrantzitsua izango da.  
Prozesuaren eta eraginaren ebaluazioa burutzeko, galdetegiak, elkarrizketak eta abar erabiliko dira. Planaren azken urtean burutuko da.

Bestalde, planaren jarraipenaren galdetegi elektronikoa betekoa da, Emakundek bere ebaluaziorako urtero eskatzen baitu.

### **Kontu Ematea**

Urtean behin, Planaren aurrerapenaren berri ematea osoko bilkuran.

Berdintasunaren aldeko konpromiso politikoen betetze maila urtero neurtuko da. Horretarako urte hasieran galdetegi bat pasatuko zaie udaleko politikariei urteko konpromisoak identifikatzeko eta urte amaieran beraiek lorpenen ebaluaketa egingo dute (autopertzepzioa). Inkestaren emaitzari berdintasun teknikariak jasotako lorpen nagusien zerrenda gehituko zaio.

Herrian berdintasunean inguruko informazioa zabalduko da.

### **Udal aurrekontua**

2021eko aurrekontua 60.149 eurokoa da. III. Berdintasun plana burutzeko partida handitzeko konpromisoa hartzen da.

### **Laguntzak eta diru-laguntzak**

Laguntzak eskatuko dira (Kultura, Hezkuntza, Hirigintza...), bai Eusko Jaurlaritzan, baita Gipuzkoako Foru Aldundian ere, jarduerak burutzeko.